



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

**Diputación
Foral de Bizkaia**

Bizkaiko Udalen finantza- iraunkortasunari laguntzeko neurriak

Sarrera

Neurri-plan honen bidez, honeei lagunduko jake:

- **Zailtasun ekonomikoak daukiezan udalak eta toki-erakundeak.**
- **Egoera ekonomiko-finantzarioa saneauta daukien udalak eta toki-erakundeak, garatzen jarraitu dagien.**

*** Oro har, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien egoera ona da, bestela gertatzen da Espainiako Erresumako udalerrietan.**



Helburuak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien **aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna** bermatzea.
2. Udalerrien **hazkuntza sustatzea** eta **herritarrei zerbitzu hobek** ematea.
3. Bizkaian udal arloan gertatzen diran **zailtasunak konpontzeko urtenbide egokia** bilatzea.
4. **Udal eta erakunde publikoek erabagiteko** ahalmena izatea.
5. **Foru berezitasuna** errespetatzea.
6. Bizkaiko Foru Aldundiak **kontrola egitea eta laguntza** ematea.



1. Bizkaiko udalerrri guztientzako neurriak

1.1 Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko foru araua.

2. Finantza arloko zailtasunak daukiezan udalerrientzako neurriak

2.1. Zorpetze-mugak aldatzen dauazan foru araua.

2.2. Eustekoetarako diran eta gastau barik dagozan Udalkutxako funtsak apliketako foru dekretua.

2.3. Finantza-zailtasun handiak daukiezan Bizkaiko udalen ekonomia saneatzeko foru dekretua.

1. Bizkaiko udalerrri guztientzako neurriak

1.1 Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko foru araua.

Justifikazioa

- Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa **konstituzioan dago jasota, 135. artikuluan**. Administrazio publiko guztiak behartuta dagoz euren jarduerak egokitzera.
- **Ekonomia Ituna. 48. artikulua**. Hau ezartzen du: aurrekontu-egonkortasunaren arloan, Euskadiko erakundeak Estatuagaz koordinatuko dira eta beragaz lankidetzan arituko dira; **Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoari** jagoko arlo horretan lankidetzan eta koordinazioan aritzeko konpromisoak erabagiteko eskumena (**62. artikulua**).
- **3/1987 Foru Araua 7. artikulua**. Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa da, eta **Bizkaiko Batzar Nagusiari eskumena emoten deitso toki-erakundeen finantza-tutoretza onartzeko**.



Helburuak (I)

AURREKONTU-EGONKORTASUNA (2. art.)

- Toki-erakundeak oreka edo superabita dauka aurrekontuan

GASTUAREN ARAUA BETETEA (3. art.)

- Gastuen aldaketak ez dau gaindituko Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak erabagiten dauan erreferentzia-tasa (defizita eta hazkunde-tasa).
- **Urigintzako gastua baztertzea, urigintza-garapenaren kontrol publikoa** egin ahal izateko.



Helburuak (II)

GASTUAREN ARAUA (3. ART.). ZUZENKETA

TOKI ERAKUNDEAK

- Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko **kapital bizia** daukien toki-erakundeen kasuan, **ekitaldian zehar sarrera finalista barriak biltzen badabez edo bildutakoak aurrez ikusitakoak baino handiagoak badira**, eta gainerako sarrerak normaltasunez gauzatzen badira, orduan aurreko beste sarrera horreek **zorra gitxitzeko erabili beharko dabez (arau bidez ezarten dan portzentajearen arabera)**, edo aurrekontuan aurreikusita dagozan beste zorpetze-eragiketa batzuk saihestera.
- Epe luzerako zor-eragiketen ondoriozko **kapital bizia** daukien toki-erakundeen kasuan, **baldin eta finantzaketa-ahalmenagaz ixten badabe ekitaldia, arauz ezarritako zenbatekoa erabiliko dabe zorra gitxitzeko**. Nolanahi ere, gitxitzearen zenbatekoa ezin da inoiz handiagoa izan gastu orokorretarako dagoan diruzaintzako geldikina baino (xedatutako gastuei jagokezan kredituen geldikinak gehitu ondoren).

Helburuak (III)

IRAUNKORTASUNA (4. art.)

Aldundiak zehaztuko dau toki-erakundeen zor publikoaren bolumena, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluagaz eginiko akordioen arabera.

GARDENTASUNA (5. art.)

Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailak jendaurrean jarriko dau toki-erakundeen informazio ekonomiko-finantzarioa.



Ez-beteteko arriskua

- Bizkaiko Foru Aldundiak ikusten badau **ez-beteteko arriskua** dagoala, **ohartarazpena** egingo **deutso toki-erakundeari**.
- Toki-erakundeak **3 hilabete** eukiko dauz behar diran neurriak hartzeko.



Ekonomia-Planak (I)

- **Aurrekontu-egonkortasuna**, zor publikoa edo gastuaren araua dirala-eta dagozan helburuak beteten ez badira.
- Aukera emon behar dabe **urte batean (1) egonkortasunera itzultzeko**.
- **Egiteko denpora: 2 hilebete**, gehienez be.
- **BFaren onarpena eta jarraipena**: gehienez be **hilebete 2ko epea 75.000 biztanle** edo gehiago daukiezan udalerrietan. Gainerakoetan, **Korporazioko udalbatzak** egingo dau jarraipena, eta informazioa emongo deutso BFari.



Ekonomia-Planak (II)

Jarraipena

- Bizkaiko Foru Aldundiak Ekonomia-planen jarraipena **sei hilerik behin** egingo dau 75.000 biztanle edo gehiago daukiezan udalerrietan.
- Gainerakoetan, Udaleko kontu-hartzaileak egingo dau **jarraipen-txostena urtero, udalbatzari jakinarazoko jako** eta, ostean, **BFARI bialduko jako**, gehienez be 15 eguneko epean.



Ekonomia-Planak (III)

Zorpetze-eragiketak baimentzea

Ez-betetea egin duen toki-erakundearen epe luzeko zorpetze-eragiketa guztiek BFaren baimena beharko dabe (75.000 biztanle edo gehiago daukiezan udalerrien kasuan).

Diruzaintzako geldikina

Toki erakundeak zorraren helburua bete badau eta gastuak diruzaintzako-geldikinagaz finantzetan badauz, Udaleko kontu-hartzaileak txosten bat egingo dau, eta udalbatzan aurkeztuko dau, haren barri euki dagian.

Proiektu estrategikoak

Toki-erakunde batek urte askotarako inbertsino-proiektu estrategikoak egiten badauz eta bere kapital biziaren bolumenak gainditzen ez badau likidau edo sortutako diru-sarrera arrunten % 20, BFAk baimena emongo dau aurrekontu-egonkortasunaren helburua edo gastuaren araua beteteko (gehienez be 3 urte).

BFAk Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluari jakinaraziko deutso baimen hori.



Aldi baterako araubidea

- Arau hau indarrean jartzen danean zorrari buruzko helburua beteten ez daben toki-erakundeek, udalbatzaren erabaki baten bidez, plan ekonomiko-finantzario bat onetsi beharko dabe kapital biziaren bolumena txikitzeko, eta plan horrek bermatu behar dau helburu hori gehienez be 6 urteko epean beteko dala.

2. Finantza arloko zailtasunak daukiezan udalerrientzako neurriak

- 2.1. Zor jakin batzuen ordainketa finantzau ahal izateko **udalek eta euren menpeko erakundeek zorpetzeko daukiezan mugak aldatzen dauazan foru araua.**
- 2.2. Eustekoetarako diran eta gaustua barik dagozan Udalkutxako funtsak apliketako foru dekretua.
- 2.3. Finantza-zailtasun handiak daukiezan Bizkaiko udalen ekonomia saneatzeko foru dekretua.



Zorpetze-mugak aldatzen dauazan Foru Arauaren Proiektua

Haren bidez aldatu egiten dira, 2013ko ekitaldirako, udalek eta euren menpeko erakundeek zorpetzeko daukiezan mugak, zor jakin batzuen ordainketa finantzau ahal izateko.

HELBURUA

Aukerea emotea kasu berezietan epe luzerako kreditu-eragiketak kontratetako.

ZOR MOTAK

- a) Ordainketa egitea: kontratistak eta epaiak, 2012-12-31ra arte
- b) 2012-12-31ra arte kontratutako epe luzerako eragiketak barriro finantzatea



Ordainketa egitea: Kontratatik eta epaiak, 2012-12-31ra arte

- a) Ordaintzeko epea amaiturik daukien zor likidoak eta galdagarriak, 2012ko abenduaren 31 baino lehenagoko faktura daukienak.
- b) Udalek eta euren menpeko erakundeek **mankomunitateakaz eta partzuergoakaz 2012ko abenduaren 31 baino lehen hartutako betebeharrak**, udal batek ordaintzeko eginbeharra bete ez badau eta ezinezko gertatzen bada kontratistari faktura batzuk edo guztiak ordaintzea.
- c) Beranduen 2012ko abenduaren 31n emondako **ebazpen judizialen** ondoriozko ordainketa-betebeharrak.

Kontratau Beharreko Eragiketak

- a. Zenbatekoa 2012-12-31ra arteko zorrak ordaintzeko izango da, ez beste ezertarako.
- b. Amortizazioaren gehieneko epea eta gabealdiak ezartzeko aukerea erregelamendu bidez garatu beharko dira.
- c. Bizkaiko Foru Aldundiak ezarriko dau zorpetze-eragiketaren interes-tasa, eta, horretarako, hitzarmena egingo dabe Aldundiak eta eragiketan parte hartuko daben finantza-erakundeek.
- d. Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko dauz, hilean-hilean, udalek edo euren menpeko erakundeek finantza-erakundeei ordaindu beharreko zenbatekoak. Horretarako, Foru Aldundiak, aurretiaz, jagokon zenbatekoa atxikiko deutso eragiketa honetan sartzen dan udal bakoitxari Udalkutxa dala-eta egiten deutzazan ordainketetatik.
- e. **Zorpetze-eragiketa menpeko erakunde bategaz egiten bada, erakunde horri jagokon udalak be izenpetu beharko dau eragiketa hori, eta atxikipena egingo da, hain zuzen be, Udalkutxa dala-eta udalari jagokozan ordainketetan, aurreko lerroaldean zehaztutako betekizun eta baldintzakaz.**

Izapidetzea

1. **Doitze-plan** bat onartu behar dabe, udalbatzaren erabagi bidez.
2. **Udalbatzaren** plan ekonomiko-finantzarioaren proposamenerako, **honeek beharko dira**:
 - a) **Udal kontu-hartzailetzaren txostena**, udal erakundeak zorrari aurre egiteko dauan ahalmenari buruzkoa.
 - b) **Lehendakaritza Sailaren** derrigorrezko **txostena**.
3. **Epe luzerako zorpetze-eragiketek** Bizkaiko Foru Aldundiaren **aurretiko baimena** behar dabe.



Doitze-plana ez betetea

Doitze- plana beteko ez balitz, ez-betetea eragin daben akatsak konpondu arte erakunde zorduna **ezin izango da izan Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzen onuraduna.**



PLANEN JARRAIPENA EGITEA

Planen barri emon beharko jako Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailari.

Toki-erakundean kontu-hartzailetzaren ardura daukan organoak txosten bat egin behar dau **urtero, plan horren burutzapenari buruz**. Txostenaren barri emongo jako udalbatzari, eta Bizkaiko Foru Aldundiko **Lehendakaritza Sailari bialduko jako**.

PLANAK EZ BETETEA

Halango plan bat beteten ez bada, toki-erakundeak ezin izango dau hitzartu epe luzerako zorpetze-eragiketarik inbertsinoak finantzetako.

2.2

EZUSTEKOAK DIRALA- ETA GASTAU BARIK DAGOZAN UDALKUTXAKO FUNTSAK (2012) APLIKETAKO FORU DEKRETUA



Kasu batzuetan 2012ko Udalkutxaren zor negatiboaren ondoriozko zorra kitatu ahal izateko prozedura.

- 1) 2012ko **Udalkutxaren likidazino negatiboa «ezustekotzat»** hartzea, dekretuaren baldintzal betetzen dabean Udalentzat
- 2) **2013ko ezustekoetarako funtsean gehitzea** 2012ko ezustekoetarako erabilgarri egoan eta gastau ez dan saldoa.



Baldintzak

EGOERA HONEETARIKO BAT GERTATZEA

- a) 2012. **likidazioaren arabera. Diruzaintzako geldikin negatiboa eragiketa arrunten baliabideen % 10etik gorakoa izatea, eta kapital bizia (zorra), berriz, likidautako diru-sarreraren % 30etik gorakoa.**

- b) **Hornitzaileei ordaintzeari jagokonez, 5/2012 Foru Arauari** heldzea, eta doitze-plana onartuta eukitea.

- c) **2012ko likidazinoan, aurrezki negatiboa eta diruzaintzako geldikin negatiboa** batera gertatzea.



Baldintzak

ESKABIDEAK AURKEZTEA

- 2013ko maiatzaren 31aren aurretik

FUNTSEN MUGA

- 1.000.000 euro.
Erabili barik geratzen dana 2013ko funtsari gehituko jako.

2.3

FINANTZA-ZAILTASUN HANDIAK DAUKIEZAN BIZKAIKO UDALEN EKONOMIA SANEATZEKO FORU DEKRETUA



Motibazinoa

- ✓ Ekonomia Ituna onartzen dauan 12/2002 Legeak eta 27/1983 Legeak **Bizkaiko Foru Aldundiari** emoten deutesie **Bizkaiko udalen finantzatutoretzarako ahalmena, toki-erakundeen finantza-desorekak aztertu daiazan eta zuzentzeko neurriak hartu daiazan.**

Onuradunak

- a) **Udalak**, baldin eta 2012ko likidazioan **diruzaintzako geldikin negatiboa euki badabe (diru-sarrera arrunten % 10 baino handiagoa)** eta likidutako diru-sarrera arrunten % 30etik gorako zorra (**kapital bizia**).

- b) Ekainaren 21eko **5/2012 Foru Arauari heldu behar deustie (hornitzaileei ordaintzeari jagokonez)**, eta **doitze-plana onartuta euki behar dabe**.

- c) 2012ko likidazioan, **diruzaintzako geldikin negatiboa euki behar dabe**, eta **aurrezki garbia be negatiboa**.



Egitarauen helburua

- Laguntza ekonomikoa emotea **finantza-zailtasun handiak daukiezan** udalei, **Udalkutxa funtsaren 2009. eta 2011. urteetakoak** diran eta 2013ko urtarrilaren 1ean ordaindu barik dagozan likidazinoen **itzulketak** finantzatzuz.

Betebeharrak

a) **Diru-laguntzak zor bizia aurretik amortizetako** erabiltea.

b) **Udal kontu-hartzaileak doitze-plana egitea, eta plan hori onartzea**; planak bermatu behar dau gehienez be 2015eko ekitaldian aurrezki garbiaren eta diruzaintzako geldikinaren zifra positiboetara itzultzea.



Baldintzak

BANAKETA ERISPIDEAK

- a) Betebehar eta baldintzak betetea
- b) Norgehiagoka araubidea
- c) Zenbatekoa: 900.000 € guztira

EPEA

- 2013ko maiatzaren 31

Ondorioak

1. Udalak sanaeatuta dagoz, ondo edo oso ondo; **FORU ARAUAREN PROPOSAMENA** egin da.
 - a) Udal hauek euren gastu eta inbertsio maila mantentzea ahalbidetzen dogu.
 - b) Udalen ekimen estrategikoak sustatzen dira.
 - c) Zorroztasun ekonomikoaz jarduten jarraituko dogu.

2. Okerren dagozan udalerrientzat, **FORU ARAUAREN PROPOSAMENA ETA FORU DEKRETU BI** sortu doguz:
 - a) Doitze-plan bat ezartea:
 - Bizkaiko udalerrien kontrola eta jarraipena egitea.
 - b) Inbertsino eta gasturako neurri-plana: Garapen ekonomikoa ahalbidetzea.
 - Zorpetze maila eta finantza-zamaren ahalbidetzea.
 - Udalen helburuak lortzen laguntzea.

BFA

DFB



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

**Diputación
Foral de Bizkaia**